a) Lan edo sindikatu izaeradun argitalpen edo abisuak enpresako lokaletan zabaltzea eta euren afiliatuen kotizazioak jasotzea. Ezin izango zaie oztoporik jarri euren sindikatu lanak egiteko, baina eskubide horiek ez dute euren lanean eraginik izango.

a) Difundir publicaciones y avisos de carácter sindical o laboral en los locales de la Empresa y recaudar las cotizaciones de sus afiliados, no pudiendo ser obstaculizados en sus tareas de afiliación sindical y sin que el ejercicio de estos derechos pueda interferir el trabajo.

b) Langile Batzordeko postuak betetzeko hauteskundeetarako hautagaiak aurkeztea.

b) Proponer candidatos a elecciones para cubrir los puestos del Comité de Empresa.

c) Sail sindikaleko afiliatuak ordezkaturako dituzten ordezkari sindikalak aukeratzea.

c) Elegir Delegados Sindicales que representen a los afiliados de la Sección Sindical.

d) Gai kolektiboetan, sindikalista, ekonomilari, abokatu eta

d) Utilizar los servicios de expertos sindicalistas, economistas,

bestelako adituen zerbitzuak erabiltzea. Horiek guztiak enpresako lokaletan sartu ahal izango dira.

e) Euren afiliatuak enpresako lokaletan biltzea, horretarako batzarrak deitzeko 46. Artikuluan jasotzen diren baldintza berberak bete beharko dira.

- 3.- Enpresak, Lan Zentro bakoitzean, baldintza egokiak dituzten lokalak ipiniko ditu bertan legez eraturako sail sindikalen esku.
- 4.- Enpresak, sail sindikalek euren lana egiteko behar dituzten beste iragarki ohol ere ipiniko ditu.

45. ARTIKULUA.- ORDEZKARI SINDIKALAK

- 1.- Legez eraturako sail sindikal bakoitzak ordezkari sindikal baten bidez ordezkaturaz izateko eskubidea izango du.
- 2.- Ordezkari sindikal bakoitza, ordezkaturako duen sail sindikalak aukeraturako du eta enpresako langile aktiboa izan beharko da.
- 3.- Ordezkari sindikal baten titularitate pertsonalaz ordezkaturaz izateko eskubidea eskatzen duen sail sindikalak Enpresaren aurrean arrazoitu beharko du modu frogagarrian. Horren ondoren Enpresak aipaturako ordezkariari sail sindikalaren izaera onarturako dio eragin guztietarako.

abogados, etc., en los temas colectivos, con acceso a los locales de la Empresa.

e) Reunir a sus afiliados en los locales de la Empresa, cumpliendo los mismos requisitos establecidos en el artículo 46, para la convocatoria de asambleas.

- 3.- La Empresa habilitará locales con las condiciones adecuadas, en cada Centro de Trabajo, para uso de las Secciones Sindicales legalmente constituidas en el mismo.
- 4.- Asimismo, la Empresa habilitará los tablones de anuncios suficientes, para que las Secciones Sindicales lleven a cabo su actividad sindical.

ARTICULO 45.- DELEGADOS SINDICALES

- 1.- Cada Sección Sindical legalmente constituida tendrá derecho a ser representada por un Delegado Sindical.
- 2.- Cada Delegado Sindical será elegido por la Sección Sindical a la que representa y será trabajador en activo de la Empresa.
- 3.- La Sección Sindical que alegue el derecho a ser representada mediante la titularidad personal de un Delegado Sindical, deberá acreditarlo ante la Empresa, de modo fehaciente y a la vista de dicha conformación, la Empresa reconocerá, acto seguido, al citado Delegado su condición de representante de dicha Sección Sindical a todos los efectos.

4.- Ordezkarik sindikalek gehienez ere ordaindutako ordu batzuk izango dituzte beren lan sindikala betetzeko ondoren zehazten den moduan:

4.- Los Delegados Sindicales dispondrán de un máximo de horas retribuidas al mes para el ejercicio de su actividad sindical, según se especifica:

LAN ZENTROA CENTRO DE TRABAJO	ORDAINDUTAKO ORDUAK HORAS RETRIBUIDAS
50-100 langile bitartean / De 50 a 100 trabajadores	15 ordu/hilean – horas/mes
101-250 langile bitartean / De 101 a 250 trabajadores	18 ordu/hilean – horas/mes
251 langile baino gehiago / De 251 trabajadores en adelante	22 ordu/hilean – horas/mes

5.- Ordezkarik sindikalek Langile Batzordekideek dituzten berme berberak izango dituzte.

5.- Los Delegados Sindicales poseerán las mismas garantías que los miembros del Comité de Empresa.

6.- Enpresak, ordezkarik sindikalei, eurak ordazkatzen duten sail sindikaleko langileei eragiten dien izaera kolektibodun arazoen berri eta horietakoren bati jar dakiokoen zigorren berri emango die. Bestalde, enpresak gai horien inguruan ordezkarik sindikalek esateko daukatena ere entzungo du.

6.- Los Delegados Sindicales serán informados y oídos por la Empresa sobre aquellos problemas de carácter colectivo que afecten a los trabajadores de la Sección Sindical que representan, así como de las posibles sanciones a imponer a alguno de los mismos.

7.- Era berean, ordezkarik sindikalek 44. artikuluan sail sindikaletarako ezartzen diren eskumen guztiak izango dituzte euren ordazkaritza lanean.

7.- Asimismo, los Delegados Sindicales ostentarán todas las competencias que se especifican en el Artículo 44 para las Secciones Sindicales en el ejercicio de su representación.

46. ARTIKULUA .- BATZARRAK

ARTICULO 46.- SAMBLEAS

1.- Enpresak, ordaindutako batzarrak lanorduetan egiteko baimena emango du baina gehienez ere, urtean 10 ordu emango dira horretarako.

1.- La Empresa autorizará la celebración de asambleas retribuidas dentro de las horas de trabajo, hasta un máximo de 10 horas anuales.

Batzar horiek Lan Zentroko langile guztientzat izango dira.

Dichas asambleas lo serán para todos los trabajadores de cada Centro de Trabajo, respetándose las

- | | |
|---|---|
| <p>2.- Enpresako lokaletan eta lanorduetatik kanpo behar adina batzar egin ahal izango dira.</p> <p>3.- Batzarrak, Langile Batzordeak deituko ditu bere kabuz, batzorderik ez badago, berriz, langileen Ordezkariek edo bestela Lan Zentroko langileen %30ak, deituko dituzte.</p> <p>4.- Deialdiaren berri gutxienez 48 orduko aurrerapenarekin emango zaio Enpresa Zudendaritzari. Jakinarazpen horretan, batzar eguna, ordua eta aztergaien zerrenda zehaztuko dira.</p> <p>5.- Arrazoitutako gertaera bereziengatik, langileen Ordezkariek, abisatzeko epea 24 orduetara murriztu ahal izango dute.</p> | <p>emisiones y grabaciones en curso.</p> <p>2.- Se podrán realizar en los locales de la Empresa y fuera de las horas de trabajo cuantas asambleas procedan.</p> <p>3.- Serán convocadas por el Comité de Empresa a iniciativa del mismo o por el/los Delegados de Personal en su defecto, o a requerimiento del 30% de los trabajadores de Centro de Trabajo.</p> <p>4.- La convocatoria se comunicará con una antelación mínima de 48 horas a la Dirección de la Empresa, fijándose en dicha comunicación la fecha, hora y orden del día de la misma.</p> <p>5.- Por razones excepcionales y fundamentadas, la representación de los trabajadores podrá reducir el plazo de preaviso a 24 horas.</p> |
|---|---|

VII. KAPITULUA.- GIZA LAGUNTZAK

CAPITULO VII.- PRESTACIONES SOCIALES

GIZA LAGUNTZAK PRESTACIONES SOCIALES

47. ARTIKULUA.- BIZITZA, ISTRIPU ETA BEREZKO HERIOTZA ASEGURUA

Gizarte Segurantzaren bidez kontratatu beharreko derrigorrezko istripu eta gaixotasun profesionaletatik eratorritako arrisku estaldura aparte utzi gabe, Enpresak Bizitza, Istripu eta Berezko Heriotza aseguru kolektibo bat ezarriko du langile guztientzat. Asegurua hurrengo gertaera hauetan oinarrituko da.

a) Erabateko elbarritasun iraunkorra.

Bere ohiko lanbiderako ezindua egiten duen erabateko elbarritasun iraunkorra jasaten duen aseguratuari, 33.957,78 eurotako ordainketa bermatzen zaio.

b) Elbarritasun absolutua.

Ordaindutako edozein lan egitea ezina gertatzen zaion elbarritasun absolutua jasaten duen aseguratuari, 47.540,66 eurotako ordainketa bermatzen zaio.

c) Elbarritasun handia.

Elbarritasun handia jasaten duen aseguratuari 67.915,27 eurotako ordainketa bermatzen zaio.

d) Istripuagatiko heriotza.

Aseguratuaren heriotza istripu baten ondorioz gertatzen bada, izendatutako onuradunei 18.676,75 euro emango zaizkie.

ARTICULO 47.- SEGURO DE VIDA, ACCIDENTES Y MUERTE NATURAL

Con independencia de la cobertura de los riesgos derivados de accidentes y enfermedades profesionales que, con carácter obligatorio, se han de contratar a través de la Seguridad Social, la Empresa establecerá un Seguro Colectivo de Vida, Accidentes y Muerte Natural, que se aplicará a todo el personal y se basará en los siguientes supuestos:

a) De invalidez total y permanente.

Se garantiza el pago de 33.957,78 euros al propio asegurado en caso de que éste sufra una invalidez total y permanente que le imposibilite para ejecutar su profesión habitual.

b) De invalidez absoluta.

Se garantiza el pago de 47.540,66 euros al propio asegurado en el caso de que éste sufra una invalidez absoluta que le imposibilite para realizar cualquier trabajo lucrativo.

c) De gran invalidez.

Se garantiza el pago de 67.915,27 euros al propio asegurado en el caso de que éste sufra una gran invalidez.

d) De fallecimiento por accidente.

Si el fallecimiento del asegurado tiene lugar como consecuencia o causa de un accidente se hará entrega a los beneficiarios designados de un capital de 18.676,75 euros.

e) Lan istripuagatiko heriotza.

Aseguratuaren heriotza, lan istripu baten ondorioz gertatzen bada, izendatutako onuradunei 37.353,5 euro emango zaizkie.

f) Arrisku handikoa:

Egoeran egoerako kasuetan, arrisku handietarako aseguru gehigarria egingo da, aseguraturako kapitala 105.717,13 eurotako izanik, helikopteroan, ultraligeroan edo delta hegalean lan egiten ari dela edo txirrindulari itzulia jarraitzen motorrean doala asegurudun langileari gertaturiko istripuak eragindako b), c) eta e) puntuetako ezbeharrak bermatzeko.

g) Berezko heriotza:

Aseguratua berez hiltzen bada, dagokion polizan izendatutako onuradunei 11.206,17 euro emango zaizkie.

48. ARTIKULUA.- EZINDUEN LEHENTASUNA

Lan istripuagatik edo gaixotasun profesionalagatik bere ohiko lanbiderako erabateko ezintasun iraunkorra ezagutzen zaion langileak lehentasunezko eskubidea edukiko du hutsik gelditu den lanpostu bat betetzeko, beti ere, bertako jarduera normaltasunez garatzeko fisikoki eta profesionalki gaitua baldin badago. Lanpostu berria beteko balu, horri

e) De fallecimiento por accidente laboral.

Si el fallecimiento del asegurado tiene lugar como consecuencia o causa de accidente laboral se hará entrega a los beneficiarios designados de un capital de 37.353,5 euros.

f) De alto riesgo.

Con carácter puntual se cubrirá un seguro adicional de alto riesgo, con un capital asegurado de 105.717,13 euros, para garantizar al trabajador asegurado las contingencias b), c) y e) anteriores derivadas de accidente ocurrido cuando el trabajador se halle desempeñando su trabajo en un helicóptero, ultraligero o ala delta o en una motocicleta cubriendo el desarrollo de una vuelta ciclista.

g) De muerte natural:

Si el fallecimiento del asegurado tiene lugar como consecuencia de muerte natural, se hará entrega a los beneficiarios designados en la póliza correspondiente de un capital de 11.206,17 euros.

ARTICULO 48.- PREFERENCIA A INCAPACITADOS

El trabajador al que se le reconozca una incapacidad permanente total para su profesión habitual, derivada de accidente de trabajo o enfermedad profesional, tendrá derecho preferente a ocupar otro puesto en el que se haya producido una vacante, siempre que esté capacitado física y profesionalmente para desarrollar con normalidad la actividad del mismo. Si

dagokion ordaina jasoko luke. Lanpostua gordeta eszedentzian dauden langileen aurrean ez du lehentasunik izango, baina bai lanpostua gorde gabe eszedentzian daudenen aurrean.

49. ARTIKULUA- PRESTAKUN- TZARAKO LAGUNTZAK

- 1.- Enpresak, 2003. urtean 17.491,45 eurotako diru kopurua gordeko du zentro aintzatetsietan bertako langileen prestakuntza errazteko.
- 2.- Laguntza bakoitzerako kopurua ezarri eta ematea Batzorde baten eskumena izango da. Batzorde hori, Langile Batzordeak horretarako izendatutako langile bik eta zuzendaritzaren ordezkari bik osatuko dute, eta dagokion araudia berak ezarriko du.
- 3.- Laguntzak, bateraezinak izango dira enpresatik kanpo jasotako beste edozein laguntza motakin, eta eskatzen deneko prestakuntza horretan langileak duen aprobetxamendu mailak baldintzatuko ditu.
- 4.- Langileen prestakuntzarako laguntza maila Prestakuntzako Batzorde berak erabakiko du.
- 5.- Urte bakoitzean erabili ez den kopurua, ondoren gordeko diren kopuruei pilatuko zaie.
- 6.- Langileek, zerbitzuaren beharrak ahalbidetzen duen heinean,

ocupara un nuevo puesto, percibirá las retribuciones que correspondan a éste. Dicho derecho preferente no lo será frente al personal en excedencia con reserva en el puesto de trabajo, pero sí frente al del personal excedente sin reserva de puesto.

ARTICULO 49.- AYUDAS PARA LA FORMACION

- 1.- La Empresa establecerá para 2003 un fondo de 17.491,45 euros para la concesión de ayudas destinadas a facilitar la formación de los trabajadores de la misma en centros reconocidos.
- 2.- La adjudicación y establecimiento de la cuantía de cada ayuda será competencia de una Comisión, formada por dos trabajadores nombrados a tal efecto por el Comité de Empresa y dos representantes de la Dirección. Esta Comisión elaborará el reglamento correspondiente.
- 3.- Las ayudas serán incompatibles con la percepción de cualquier otro tipo de ayuda ajena a la Empresa y estarán condicionadas al grado de aprovechamiento del perceptor en la formación para la que se solicitan.
- 4.- El nivel de ayuda para la formación de los propios trabajadores se determinará por la propia Comisión de Formación.
- 5.- Las cantidades que no se hubieran aplicado en cada año, se acumularán a las dotaciones sucesivas del fondo.
- 6.- Los trabajadores contarán con la ayuda de la Dirección, en tanto en

zuzendaritzaren laguntza edukiko dute prestakuntza errazteko lanaldia egokitu edo, hala badagokio, ordaindu gabeko baimenak edukitzerako orduan. Langileek, bestalde, zuzendaritzaren esku utziko dute irakaskuntza materiala eta gainontzeko dokumentazioa, beste langileek erabili ahal izan dezaten.

50. ARTIKULUA.- LANGILEEN PRESTAKUNTZA

- 1.- ETBrentzat lan egiten duten beharginek euren lanari dagozkion zereginak ongi betetzeko eta sustapen profesionalerako behar duten prestakuntza bereganatzeko eskubidea eta betebeharra dute.
- 2.- Urtero, Prestakuntzako Batzorde Parekideak EITB Herri Erakundeko Zuzendaritza Orokorrari langileak prestatzeko plana helaraziko dio. Plana, lehenago adierazi diren helburuen arabera prestatuko da eta planean bertan zehaztutako unean eta maiztasunez jakinaraziko dute nola bete den eta zelako emaitzak izan dituen.
- 3.- Prestakuntza Batzordea parekidea izango da eta honako betekizunak izango ditu:
 - a) Hobetuzen edo antzeko organismoen Prestakuntza Plana apailatuko du urtero.
 - b) Hobetuz Planaren jarraibideak betetzea eta aurrera eramatea eta egin beharreko ikastaroetan lehentasunak ezartzea, bakoitza zein arlori dagokion zehaztea eta ikastaroetara joango diren

cuanto las necesidades del servicio lo permitan, para adecuar su jornada o, en su caso, disfrutar de permisos no retribuidos, en orden a facilitar la formación y deberá entregar a la Dirección el material docente y la documentación que reciban para que puedan ser utilizadas en beneficio del resto de los trabajadores.

ARTICULO 50.- FORMACION DEL PERSONAL

- 1.- El personal al servicio de ETB tiene el derecho y la obligación de adquirir la formación necesaria para el buen desenvolvimiento en las tareas y funciones que correspondan a su trabajo y para su promoción profesional.
- 2.- Anualmente, la Comisión Paritaria de Formación, elevará a la Dirección General del Ente Público de EITB, el plan de formación del personal, que será elaborado atendiendo los objetivos señalados anteriormente y de cuyo cumplimiento y resultado informarán con la periodicidad y el momento que en el propio plan se determine.
- 3.- La Comisión de Formación que tendrá carácter paritario, tendrá las siguientes funciones:
 - a) Elaborará el Plan de Formación de Hobetuz u organismos análogos cada año.
 - b) Ejecutar y llevar a término las líneas generales del Plan Hobetuz, estableciendo las prioridades de los cursos a realizar, el ámbito al cual va dirigido a cada uno de ellos y

beharginak hautatzeko irizpideak finkatzea. Ez du bazterrean utziko egunean-egunean ikastaroen jarraipena egitea, baina horren ardura Enpresako Prestakuntza Zuzendaritzak hartuko du.

- c) Prestakuntzarekin lotuta langileek egindako proposamenak eta iradokizunak batzea.
- d) Prestakuntzako Barne-Araudia egitea, arlo horren funtzionamenduari dagozkion xehetasunak bilduz eta prestakuntza jardueretan sartzeko, parte hartzeko, programatzeko eta aurrera eramateko irizpideak finkatuz.
- e) Hobetuzen prestakuntza planen jarraipena egitea eta Urteko Txostena egitea, Plana zelan bete den eta zelan hobetu daitekeen adieraziz.
- f) Prestakuntza jarduerak egiteko egutegia prestatzea, ikastaroa hartu behar duten langileen ordutegia aintzat hartuta.
- g) Prestakuntza Batzordeko buru EITBko Prestakuntza Zuzendaria da.

4.- Langileen prestakuntza institutu, zentro edo telebistako zereginetan aditu diren profesionalen bidez egingo da, bai lantokian bertan bai kanpoan.

Era berean, Lan Hitzarmen honen 36.2. artikulua dioenez, argitalpenak eta informazio

establecer los criterios de acceso al personal que asistirá a los cursos. Sin perjuicio del efectivo seguimiento de carácter diario, cuya responsabilidad asumirá la Dirección de Formación de la Empresa.

- c) Recoger las propuestas y sugerencia en materia formativa de los trabajadores.
- d) Elaborar un Reglamento Interno de Formación, que recoja los aspectos de funcionamiento en esta materia y desarrollará criterios de acceso, participación, programación y realización de acciones formativas.
- e) Realizar el seguimiento de los planes de formación de Hobetuz, efectuando una Memoria anual en la que se analice el cumplimiento del Plan y sus posibles mejoras.
- f) Elaborar el calendario de realización de acciones formativas, con observancia de los horarios de los trabajadores a los que se dirige el curso.
- g) La Comisión de Formación estará presidida por el Director de Formación de EITB.

4.- La formación del personal se efectuará a través de institutos, centros o profesionales especializados en el medio televisivo, tanto dentro del centro de trabajo como fuera.

Asimismo se facilitarán publicaciones e informaciones bibliográficas de acuerdo al artículo 36.2. de este

bibliografikoak eskuratuko zaizkie.

5.- Ikastaroetara joatea derrigorrezkoa izango da, Enpresak guztiz ordaindu eta lanorduen barruan egiten badira, edo lanorduetatik kanpo egin arren langileari artikulu honetako 6. atalean esaten den legez ordaintzen bazaio.

6.- Langile bakoitzak prestakuntzari ematen dion denboraren ordutegia zehazteko helburuz, ikastaroen artean mota bi bereiziko dira: derrigorrezkoak eta borondatezkoak.

Derrigorrezko ikastaroetara joateak dakarren kostu ekonomikoa enpresak hartuko du bere gain, nahitaez joan beharko da eta, ahal den neurrian, lanaldiaren barruan egingo dira.

Guztiz edo zati batean lanalditik kanpo egiten diren ikastaroak direla eta, enpresak urtean 20 orduko gehienezko kreditua izango du, lanalditik kanpo eta batera ordainik gabe. Beharginak derrigorrezko prestakuntzari hortik gora ematen dion denbora ordaintzeko, ikastaroak irauten duen bitartean ordu beteko ordaina emango da ikastaroan egindako ordu bakoitzeko, baina jaiegunetan eginez gero ordu biko ordaina ikastaroan egindako ordu bakoitzeko.

Programazio arazoak direla eta prestakuntza lanalditik kanpo ematen denean, ezin izango da 9 ordu baino gehiagokoa izan lan eta prestakuntza orduen gehiketa.

Convenio.

5.- La asistencia a los cursos será obligatoria cuando estén subvencionados totalmente por la Empresa y se desarrollen dentro de sus horas de trabajo, o bien, desarrollándose fuera de la jornada de trabajo, el trabajador será compensado de acuerdo a lo establecido en el apartado sexto del presente artículo.

6.- A los efectos del tratamiento horario del tiempo dedicado por cada trabajador a tareas formativas, los cursos se distinguirán entre: cursos obligatorios y voluntarios.

En la asistencia a los cursos obligatorios el coste económico será a cargo de la empresa, su asistencia obligatoria y se desarrollarán dentro de la jornada laboral, siempre que sea posible.

En aquellos cursos que se desarrollen total o parcialmente fuera de la jornada laboral, la empresa dispondrá de un crédito máximo de 20 horas anuales de asistencia a cursos obligatorios fuera de la jornada laboral sin compensación alguna. Por encima de dichas horas dedicadas por el trabajador a la formación obligatoria será compensado hora por hora durante el tiempo que dure el curso y si el mismo se desarrollara en festivo se compensaría dos horas por hora recibida.

Cuando por necesidades de la programación de formación deba ésta ser impartida fuera de la jornada de trabajo no podrá superarse el total de 9 horas en el

7.- Enpresako beste behargin batzuek ere eska dezakete langile jakin batzuentzat derrigorrez antolaturiko ikastaroetara joatea, hutsunerik egotekotan, betiere lanalditik kanpo, ordainik hartzeko eskubiderik gabe, ikastaroaren martxa ez oztopatzeko moduko prestakuntza badute eta euren lan prestakuntzarako interesgarria bada.

8.- ETBko Zuzendaritzak urtero kopuru bat zehaztuko du prestakuntza profesionala garatzeko. Kopuru hori sekula ez da izango esplotazio aurrekontuen milako bi baino gutxiagokoa.

9.- Langileek Zuzendaritzaren esku ipiniko dute irakaskuntza materiala eta jasotako dokumentazioa gainontzeko langileek erabili ahal izan dezaten eta horiei jasotako ikasgaiak erakutsiko dizkie hala eskatzen badute.

10.- Langile batek, enpresaren kontura, konputu orokorrrean 9.015,18 euro baino gehiago balio duen ikastaro bat egiten badu, Hitzarmen honetan jasotzen diren eszedentziak hartzeko eskubidea mugaturik edukiko du eta baita borondatezko baja eskatzekoa ere gutxienez 2 urteko epean. Bi egoera horietarako bat gertatzen bada ikastaroaren balioa itzuli egin beharko du langileak.

cómputo de jornada de trabajo más horas de formación.

7.- A los cursos organizados con carácter obligatorio para los trabajadores designados para ello, podrán solicitar también su asistencia con carácter voluntario y si hubiera vacantes, otros trabajadores de la Empresa fuera de sus horas de trabajo sin derecho a compensación y siempre que su formación sea la suficiente como para no entorpecer el normal desarrollo del curso y puedan ser de interés para su formación profesional.

8.- La Dirección de ETB consignará anualmente en el proyecto de presupuestos una dotación no inferior al dos por mil del presupuesto de explotación para el desarrollo de la formación profesional.

9.- Los trabajadores pondrán a disposición de la Dirección el material docente y la documentación recibida para que puedan ser utilizadas por el resto de los trabajadores e impartirán a éstos, si así se les solicita, las enseñanzas recibidas.

10.- En los casos en que un trabajador realice un cursillo por cuenta de la Empresa, siendo el importe del mismo, en cómputo global, superior a 9.015,18 euros tendrá restringido el derecho a beneficiarse de las excedencias establecidas en el presente convenio, así como a solicitar baja voluntaria en la Empresa por un período mínimo de 2 años. Caso de producirse cualquiera de estas dos circunstancias, deberá devolver el

51. ARTIKULUA.- EUSKARA

ETBk euskal zabalkundeko komunikabidea den legez euskararen arazoa ezagutzen du, hori dela eta, plantilako langile guztien euskara ikaskuntza eta hobekuntza sustatu beharra ikusten du eta horretarako honako bitartekook ezarriko ditu:

Langile finkoek euskara ikasi edo hobetzeko honako bide hauek aukeratu ahal izango dituzte zehazten diren lan baldintzetan:

- a) Kasu bakoitzean zehazten diren zentro aintzatetsiek antolatzen dituzten ikastaro trinkoak edo barnetegi erakoak, astelehenetik ostiralera, gutxienez egunean bost orduz. Epe horretan langilea bere lanalditik salbu egongo da, baina edozein arrazoiengatik klaserik ez dagoen lanegunetan lanera joan beharko da. Honetarako beharrezkoa izango da euskalduntzearen 3. mailaren jabe dela egiaztatzea.

Ikastaroak irauten duen bitartean langileak bere soldatari gehi antzinakotasunari dagokion ordaina jasoko du.

Beharrezkoa den baimena zerbitzuen beharrek ahalbidetzen dutenera baldintzaturik egongo da.

- b) Zentro aintzatetsietan egin beharreko ikastaroetarako %100eko laguntza izango da langile guztientzat eta beren lan ordutegia ahalik eta gehien egokituko zaio ikastaro orduari.

importe de dicho cursillo.

ARTICULO 51.- EUSKERA

ETB como medio de información de difusión vasca y conociendo la problemática de la lengua vasca, entiende que debe fomentar con todos los medios que estén a su alcance el aprendizaje o mejora del euskera por todos los trabajadores de su plantilla y para ello se establecen los siguientes medios:

Los trabajadores fijos tendrán opción a las siguientes vías para el aprendizaje o mejora del euskera y en las condiciones laborales que se detallan a continuación:

- a) Los cursos intensivos o en régimen de internado organizados por los centros reconocidos que se determinen en cada caso, de lunes a viernes, con un mínimo de 5 horas diarias. Durante este período, el trabajador estará exento de la jornada laboral, debiendo acudir a su puesto normal de trabajo todos aquellos días laborables en que por cualquier motivo no se impartan las clases mencionadas. Será necesario acreditar un nivel de grado 3 de euskaldunización.

Durante el tiempo que dure el curso, el trabajador percibirá la retribución equivalente a puntos puesto.

La concesión del permiso necesario estará condicionada a que las necesidades del servicio lo permitan.

- b) Subvenciones del 100% para cursillos a realizar en Centros reconocidos, para todos los trabajadores, adecuándoseles su horario de trabajo lo máximo posible al horario de los mismos.

- c) Prestakuntzarako Laguntza Batzordeak arautuko du eskubide hau langileen eskabideak eta zerbitzuaren beharrak kontuan hartuta. Interesdunek ikastaroan duten aporbetxamendu maila ere kontrolatuko du.

Edonola ere, goian aipatutako baldintzetan egiten den euskalduntze edo alfabetatze prozesua, langileak bere lana euskaraz egiteko moduko gaitasun egokia lortzen duenean amaituko da.

Enpresan urtebete baino gehiagoko antzinakotasuna duen lanaldi osoko aldi baterako langileei ere ezarri ahal izango zaie artikulu honetan ezarritakoa. Enpresako gainontzeko aldi baterako langileek matrikula ordainduta izateko eskubidea besterik ez dute izango.

52. ARTIKULUA. - GUTXITU FISIKO ETA PSIKIKOAGATIKO LAGUNTZA

Enpresak elbarri psikiko edo fisikoagatiko laguntza emango du, eta Gizarte Segurantzak helburu horretarako ezarritakoa izango da zenbatekoa.

Laguntza hori langile finkoentzat baino ez da izango, eta etorkizunean Gizarte Segurantzako prestazio hori desagertuta ere, laguntza horri eutsiko zaio.

53. ARTIKULUA .-SOLDADUZKA EDO ORDEZKO ZERBITZU ZIBILA

Langile finkoek soldaduzka edo ordezeko zerbitzu zibila egiten duten bitartean, borondatez egiten badute ere, aldi baterako baja sortuko dute.

- c) La Comisión de Ayudas para la Formación regulará conjuntamente el ejercicio de este derecho, a la vista de las solicitudes de los trabajadores y de las necesidades del servicio. Asimismo, controlarán el aprovechamiento del curso por los interesados.

En cualquier caso, el proceso de aprendizaje o alfabetización en las condiciones arriba señaladas, concluirá cuando el trabajador haya alcanzado el nivel de capacitación adecuado para el desempeño de su trabajo en euskera.

Lo establecido en este artículo será además aplicable al personal temporal a jornada completa, con más de un año de antigüedad en la Empresa. El resto del personal contratado temporal tendrá derecho únicamente al pago por la Empresa del costo de la matrícula.

ARTICULO 52.- AYUDA POR DISMINUIDO PSIQUICO Y FISICO

Por disminuido psíquico o físico, la Empresa entregará una ayuda cuya cuantía será la establecida por la Seguridad Social para el mismo.

Esta ayuda, que beneficiará únicamente al personal fijo, se mantendrá independientemente de que en el futuro pudiera desaparecer esta prestación por parte de la Seguridad Social.

ARTICULO 53.- SERVICIO MILITAR O PRESTACION CIVIL SUSTITUTORIA

Los trabajadores fijos, durante el tiempo del servicio militar o prestación civil sustitutoria, aunque lo efectúen como voluntarios, causarán baja temporal.

Epe horretan eta bi hilabete gehiagoan lanpostua gordeko zaie antzinakotasunerako denbora hori kontatuko zaielarik.

Soldaduzka edo ordezeko zerbitzu zibila egiten duten bitartean tokatzen zaizkien paga estrak jasoko dituzte.

Beren betebeharrak militar edo zibilek lanera joaten uzten badiote, gutxienez egun erdiz, langileak tokatzen zaion soldata zatia kobratzeko eskubidea izango du eta uztaile eta gabonetako paga estrak oso-osorik jasotzekoa ere bai. Gainera bere soldata jasotzen duen proportzio berean jasoko du oporren ordaina ere.

54. ARTIKULUA.- OHIKO ETXEBIZITZA EROSTEKO DIRULAGUNTZA

lurretako Lan Zentroko langile finkoei banketxe batek emandako kreditu nagusiaren 6 interes-puntuko dirulaguntza emango zaie 42.070,85 eurora bitartean ohiko etxebizitza erosteko ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- a) Ohiko etxebizitza erostea (ez da bigarren etxebizitza sartzen).
- b) Ohiko bizilekua lurretako Lan Zentrotik 10 km baino gutxiagora dagoen toki batera aldatzen bada.
- c) Aurreko bizilekua aipatutako Lan Zentrotik 30 km baino gehiagora baldin badago.

Enpresak emandako dirulaguntza, langilea ETBko plantilan lurretako Lan

Se les reservará la plaza durante este período y dos meses más, computándoseles el tiempo a efectos de antigüedad.

Percibirán las pagas extraordinarias que coincidan durante su servicio militar o prestación civil sustitutoria.

Si sus obligaciones civiles o militares le permiten acudir a su puesto de trabajo diariamente, al menos media jornada, el trabajador tendrá derecho a percibir la parte de haberes que le corresponda, e íntegramente las pagas extraordinarias de Julio y Navidad. Asimismo, disfrutará de la retribución de vacaciones en la misma proporción en que perciba sus haberes.

ARTICULO 54.- SUBVENCION PARA LA COMPRA DE VIVIENDA HABITUAL

La Empresa subvencionará al personal fijo perteneciente al centro de trabajo de lurreta seis puntos de interés, hasta un importe máximo de 42.070,85 euros del principal del crédito concedido por una Entidad financiera para la compra de la vivienda habitual, siempre que se cumplan los tres requisitos siguientes:

- a) Adquisición de vivienda habitual (no incluye segunda vivienda).
- b) Traslado de residencia habitual a un lugar situado dentro de un radio de acción de 10 kms. del centro de trabajo de lurreta.
- c) Residencia anterior situada a más de 30 kms. de dicho centro de trabajo.

La Empresa mantendrá la subvención concedida únicamente mientras el

Zentroan alta emanda dagoen bitartean eta dirulaguntza eskaini zaioneko etxebizitza horretan bizi izaten jarraitzen duen bitartean bakarrik mantenduko da.

Dirulaguntza behin bakarrik emango da eta ezin izango da ondorengo etxebizitzak erosteko eskatu.

Ezkontide biek ETBn lan egiten badute emandako maileguaren mugaraino pilatu ahal izango da kopurua beti ere 14 milioi pezetako kopurua gainditzen ez bada. Dirulaguntzaren portzentaia ordea ezin izango da inolaz ere pilatu beti %6koa izango baita.

55. ARTIKULUA.- KONTSUMORAKO AURRERAPENAK

Langile finkoek hitzarmena izenpetu ondoren kontsumorako aurrerapenarako eskubidea izango dute ondoren zehazten den araudiaren arabera:

Kontsumorako aurrerapentzat hartuko dira egingabeko lan baten kontura emango diren kontuan hartzeko ordainketak.

- I.- Emateko gehieneko kopurua pertsonako 3.606,07 eurotarainokoa izango da (senarrak eta emazteak biek lan egiten badute eskubide individualizatuarekin bietako batek bakarrik jasoko du laguntza hori) eta horretarako, artikulua honen 5. atalean jasotako egoeraren bat gertatu beharko da. Aipatutako atalean jasotako e), f), g), h), i), j), k) eta l) kasuetan zehaztutako gehieneko kopuruaren barruan eman beharreko diru kopurua

trabajador siga dado de alta en la plantilla de ETB y en el centro de trabajo de lurreta, y continúe residiendo habitualmente en la vivienda para la que se conceda la subvención.

La subvención se concederá por una sola vez, es decir, sin que se pueda volver a solicitar para sucesivas viviendas.

En el caso de que ambos cónyuges trabajen en ETB, se podrá acumular el importe del principal hasta el límite del préstamo concedido, siempre que éste no supere la cantidad de catorce millones de pesetas. En ningún caso se podrá acumular el porcentaje de subvención, que será siempre del 6%.

ARTICULO 55.- ANTICIPOS AL CONSUMO

Los trabajadores fijos tendrán derecho a partir de la firma del convenio a anticipos al consumo de conformidad con la normativa que a continuación se expone:

Se considera anticipo de consumo el que se refiere al abono de cantidades a cargo de retribuciones computables a un trabajo no efectuado.

- I.- El importe máximo de los anticipos a conceder será de hasta 3.606,07 euros por persona (en el supuesto de trabajar marido y mujer con derecho individualizado, solo lo percibirá uno de los dos) para ello será necesario que concorra alguna de las circunstancias calificadas como necesidad urgente en el apartado 5º de este artículo. En los supuestos e), f), g), h), i), j), k) y l) previstos en el citado apartado, el importe a conceder vendrá

gastuen egiaztagirietan jasotako kopuruak zehaztuko du. Eskatzaileak bere eskariarekin batera egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu premia larria egiaztatzen duten dokumentu legez.

2.- Ordaintzeko gehieneko epea 24 hilabetekoa izango da. Aurrerapen horiek ez dute inolako interesik sortuko eta gehienez jotakoa baino epe laburragoan itzuli ahal izango dira.

3.- Ezin izango da aurrerapen berririk eman mota honetako aurreko konpromisoak kitaturik ez dauden bitartean eta ezta beste eskatzailek dagoen bitartean ere. Era berean, aurrerapen bat itzuli eta beste bat eskatu ahal izateko urtebete pasatu beharko da.

f) eta g) ataletan jasotako arrazoiak bateraezinak izango dira eta 10 urteko epean aurrerapen bakarra emateko eskubidea emango dute. Era berean, atal horiek hitzarmeneko 48. artikularekin bateraezinak izango dira.

Aurrerapenaren onuradunek ez dute inolako eszedentziarik hartzeko eskubiderik izango aurrerapenak guztiz ordaintzen ez dituzten bitartean.

Borondatezko baja kasuan aurrerakinetik ordaintzeke duen kopurua itzuli egin beharko du.

4.- 2003. urtetan kontsumorako aurrerapenatarako gordetako kopurua 90.151,82 eurotako izango

determinado dentro del límite máximo señalado por la cuantía que figure en los justificantes de gastos que, como documentos acreditativos de la necesidad urgente exigible en todos los casos, deberá adjuntar el peticionario a su solicitud.

2.- El plazo máximo de reintegro será de 24 mensualidades. Estos anticipos no devengarán interés alguno y podrán ser reintegrados en un plazo inferior al señalado como máximo.

3.- No podrá concederse ningún nuevo anticipo mientras no se tuvieran liquidados los compromisos de igual índole con anterioridad, ni mientras haya otros peticionarios. Asimismo deberá transcurrir un período mínimo de un año entre la devolución de un anticipo concedido y la solicitud de otro.

Las causas contempladas en los apartados f) y g) serán incompatibles entre sí y otorgarán derecho a la concesión de un solo anticipo durante el período de 10 años. Asimismo dichos apartados serán incompatibles con el artículo 54 del convenio.

Los beneficiarios de anticipos no tendrán derecho a ningún tipo de excedencia en tanto en cuanto no hayan reintegrado los anticipos en su totalidad.

En caso de baja voluntaria deberá reintegrar el importe pendiente del anticipo.

4.- El importe destinado a anticipos al consumo para 2003 será de 90.151,82.

da.

5.- Premia larriak: Egoera hauetatik eratorritakoak izango dira:

- a) Eskatzailearen ezkontza.
- b) Eskatzailearen dibortzioa, banaketa edo ezkontza ezeztatzea.
- c) Ezkontidea edo seme-alaben heriotza.
- d) Seme-alabaren jaiotza.
- e) Eskatzailearen gaixotasuna edo operazio larria.
- f) Ohiko etxebizitzaren erosketa (ez bigarren etxebizitza).
- g) Ohiko etxebizitza dela-eta banketxeetako kredituen amortizazioa.
- h) Ohiko etxebizitza kontserbatzeko beharrezko eta ezinbesteko obrak egitea.
- i) Eskatzailearen Lan Zentroa kokatzen den herrira etxebizitza aldatzea.
- j) Ohiko etxebizitzarako altzariak erostea.
- k) Zentro ofizialetan egin beharreko eskatzailearen edo seme-alabaren ikasketen matrikula gastuak ordaintzea.
- l) Ibilgailua erostea. Erosketa hori lurretako Zentrotik Miramonera joan beharrak arrazoitzen duenean premia honek lehentasuna edukiko du aurrerapenak ematerako

5.- Necesidades urgentes: Tendrán dicha consideración las derivadas de:

- a) Matrimonio del solicitante.
- b) Divorcio, separación o nulidad matrimonial del solicitante.
- c) Fallecimiento del cónyuge o hijos.
- d) Nacimiento de hijos.
- e) Enfermedad o intervención quirúrgica grave del solicitante.
- f) Adquisición de vivienda habitual (no segunda vivienda).
- g) Amortización de créditos bancarios con ocasión de adquisición de vivienda habitual.
- h) Realización de obras necesarias e imprescindibles para la conservación de la vivienda habitual.
- i) Traslado de domicilio a la localidad donde se encuentra ubicado el centro de trabajo del solicitante.
- j) Adquisición de mobiliario para la vivienda habitual.
- k) Gastos de matrícula derivados de estudios en centros oficiales en relación con el solicitante o hijos.
- l) Adquisición de vehículo. Cuando la compra de vehículo esté motivada por razón de desplazamiento al Centro de lurreta o Miramón, esta

orduan.

6.- Tramitazioa:

Aurrerapen eskaria gehienez ere arrazoitzen duen egoera gertatu eta bi hilabete aurretik edo hilabete ostetik egin ahal izango da. Eskatutako gastuen egiaztagiriak aurkezten ez badira aurrerapena itzuli egin beharko da Batzordeak erabakitzen duen prozeduraren bidez. Aurrerapen eskariak Kontsumorako Aurrerapen Batzordeari zuzendu beharko zaizkio, horrek ezarriko ditu-eta prozedurak, kontrolak eta funtzionamendurako arauak.

56. ARTIKULUA.- JANTOKIRAKO DIRULAGUNTZA

Enpresako jantokian, lurretan nahiz Miramonen jaten den menu eta egun bakoitzeko 1,09 eurotako dirulaguntza ezartzen da.

57. ARTIKULUA.- JUBILAZIOA

1.- Nahitaezko Jubilazioa

ETBko beharginen nahitaezko jubilazioa ofiziosz aldarrikatuko da, 65 urte betetzean.

2.- Borondatezko jubilazioagatik kalteor-dainak

ETBko langile finkoek borondatezko jubilazioagatik kalteordaina jasotzeko eskubidea izango dute. Izan ere,

necesidad será prioritaria sobre las restantes para la concesión de anticipos.

6.- Tramitación:

El plazo máximo para la presentación de solicitud de anticipos de consumo será de dos meses con anterioridad a la fecha del hecho causante o un mes con posterioridad al mismo. Caso de no presentar los justificantes de gasto requeridos, la devolución del anticipo será automática mediante el procedimiento que la Comisión determine. Las solicitudes de anticipo deberán dirigirse a la Comisión de Anticipos al Consumo, la cual establecerá los procedimientos, controles y normas de funcionamiento.

ARTICULO 56.- SUBVENCION AL COMEDOR

Se establece una subvención de 1,09 euros. por cada menú y día que el trabajador efectúe en el comedor de la Empresa, tanto en lurreta como en Miramón.

ARTICULO 57.- JUBILACION

1.- Jubilación forzosa

La jubilación forzosa de los trabajadores de ETB se declarará de oficio al cumplir los 65 años de edad.

2.- Indemnizaciones por jubilación voluntaria

Los trabajadores fijos de ETB tendrán derecho a una indemnización por jubilación voluntaria en atención a que ello

borondatez jubilatzeak legez jubilatzeiko adina iritsi artean lanean jarraituz gero kobratuko litzatekeena baino gutxiago kobratzea esan nahi du. Horretarako kalteordainak ondoren zehaztutako kopuruetan jasoko dira, beti ere, honako baldintzak betetzen badira:

- a) Borondatez jubilatzeiko eskaria gutxienez horretarako aurreikusitako adina bete baino hiru hilabete lehenago egitea.
- b) Bere kasuan eskatzen zaion aurretramitearen erantzuna jaso eta hilabeteko epean eskubide hori erabiltzea.

Edonola ere ondorio ekonomikoak borondatez jubilatzeiko adina betetzen den egunetik hasiko dira eragiten.

Kalteordainaren kopurua honako eskala honen arabera kalkulatu da, beti ere, momentu bakoitzean indarrean dauden ordainketa gordin osoak kontuan hartuz.

supone percibir unas prestaciones menores a las que percibirían de seguir en activo hasta la edad obligatoria de jubilación y que se establecen en las cuantías que a continuación se indican, siempre que:

- a) La petición de jubilación voluntaria se realice con al menos tres meses de antelación a la fecha de cumplimiento de la edad prevista para la jubilación voluntaria.
- b) Se ejerza ese derecho en el plazo de un mes a partir de conocerse la contestación del trámite previo que en su caso se exija.

En todo caso, los efectos económicos surtirán siempre sobre la fecha de cumplimiento de la edad de jubilación voluntaria.

La cuantía de la indemnización se calculará con arreglo a la siguiente escala, siempre con referencia a retribuciones íntegras brutas en vigor en cada momento.

ADINA EDAD	HILABETE KOPURUA NUMERO MENSUALIDADES
60 urte/años	12 Hilabete/mensualidades
61 urte/años	9 Hilabete/mensualidades
62 urte/años	6 Hilabete/mensualidades
63 urte/años	4 Hilabete/mensualidades
64 urte/años	2 Hilabete/mensualidades

VIII. KAPITULUA -. ORDAINKETA ERREGIMENA

CAPITULO VIII.- REGIMEN DE RETRIBUCIONES

ORDAINKETA ERREGIMENA REGIMEN DE RETRIBUCIONES

58. ARTIKULUA.- OINARRI OROKORRAK

EUSKAL IRRATI TELEBISTA Erakunde Publikoaren sorrerako 5/1982 Legeraren arabera, Administrazio Kontseiluaren ahalmena da Erakunde Publikoko eta bere sozietateetako langileen ordainketa erregimena (estrukturala) onartzea.

Hitzarmen hau izenpetu duten aldeek hartutako akordioak Administrazio Kontseiluak onartu ditu eta langileen ordainketa-estruktura honako hau izango da:

- a) Soldata.
- b) Soldata osagarriak:
 - Pertsonalak.
 - Lanpostuarenak.
 - Lan kopuru eta kalitatearenak.
 - Hilabete baino gehiagoko epemugakoa.
- c) Soldatarenak ez diren osagarriak.

Kapitulu honetan eta bertan aipatutako Eranskinetan kontzeptu guztietarako jasotzen diren ordainketak, 2003. urteko balioei dagozkie, atzerako eragina Hitzarmenaren Amaierako Aktan hitzartutakoa izanik..

Puntuak, zenbait ordaintze kontzepturen neurri unitateak, 2003. urtean 15,7253 eurotako balioa izango du.

59. ARTIKULUA.- SOLDATA

Maila profesional bakoitzerako soldata I.

ARTICULO 58.- PRINCIPIOS GENERALES

De acuerdo con la Ley 5/1982 de creación del Ente Público EUSKAL IRRATI TELEBISTA, es facultad del Consejo de Administración la aprobación del régimen de retribuciones del personal del Ente Público y sus Sociedades.

Los acuerdos alcanzados por las partes firmantes del presente Convenio en esta materia han sido aprobados por el Consejo de Administración y la estructura de las retribuciones del personal serán las siguientes:

- a) Sueldo.
- b) Complementos salariales:
 - Personales.
 - De puesto de trabajo.
 - De cantidad y calidad del trabajo.
 - De vencimiento superior al mes.
- c) Complementos no salariales.

Las retribuciones que para todos los conceptos se fijan en este capítulo y en los Anexos en él citados corresponden a valores de 2003, con la retroactividad que se acuerda en el Acta Final del Convenio.

El valor del "punto" como unidad de medida de determinados conceptos retributivos equivale en 2003 a 15,7253 euros.

ARTICULO 59.- SUELDO

El sueldo para cada nivel profesional será

Eranskinean jasotzen dena izango da.

Aipatutako soldata, 1989ko Hitzarmenaren VI. Eranskinean jasotako lanpostu bakoitzari eskatzen zaizkion baldintza eta eginkizunen arabera ezarri da. Horretarako, izaera bereziaren arabera lan bakoitzaren egoera kontuan hartu da, esaterako; zaintzaile eta telefonistentzat lanaldia asteko 7 egunetan banatzea, hitzarmen honetan aurreikusitako ordutegi mota ezberdinetan txandatu eta errotatzeko aukerarekin, zerbitzuak eskatzen duen arrazoizko disponibilitatea, balioaniztasuna eta eginkizunetan aurreikusitako agintea, neketasuna, arriskugarritasuna, toxikotasuna e.a.. Beraz, aparteko ordainketa ondorengo artikuluetan ezartzen diren soldata osagarriek bakarrik emango dute.

60. ARTIKULUA.- OSAGARRI PERTSONALAK

Soldata ezartzerakoan bere mailako eginkizun eta baldintzak baloratzeko orduan kontuan hartu ez diren langilearen baldintza pertsonalak ordainduko dira.

60.1. Antzinakotasun osagarria

Langile finkoek, soldataz gain Enpresan egindako 3 urteko aldi bakoitzeko antzinakotasunagatik Hitzarmen honetako II. Eranskinean ezartzen diren kopuruak jasoko dituzte. Horretarako ez da kontuan hartuko langileak kontratua etenda duen denbora, aldi baterako lan ezintasun egoeran, kargu publikoak betetzeko derrigorrezko eszedentzian eta soldaduzka edo ordezkotako zerbitzu zibil egoeran ez baldin badaude behintzat.

el que figura en el Anexo I.

Dicho sueldo se ha fijado en base a las funciones asignadas y requisitos exigidos a cada puesto en el Anexo VI del Convenio de 1989 y teniendo en cuenta las circunstancias que concurren en cada uno en virtud de la naturaleza específica de la actividad de televisión, como pueden ser, la distribución con la jornada a lo largo de los siete días de la semana con la posibilidad de turnar y rotar en las diversas modalidades de horarios previstas en el presente Convenio, la disponibilidad razonable que el servicio requiere, la polivalencia y el mando previsto en las funciones, la penosidad, peligrosidad o toxicidad, etc. y, por tanto, únicamente darán lugar a retribución diferenciada los complementos salariales que se establecen en los artículos siguientes.

ARTICULO 60.- COMPLEMENTOS PERSONALES

Retribuye las condiciones personales del trabajador que no han sido tenidas en cuenta a la hora de valorar las funciones y requisitos de su categoría para fijar su sueldo.

60.1. Complemento de antigüedad

Los trabajadores fijos percibirán, además de su sueldo, las cantidades que se fijan en el Anexo II de este Convenio por cada tres años de antigüedad en la Empresa. No se computarán a estos efectos los períodos en los cuales el trabajador tenga suspendido el contrato, salvo en las situaciones de Incapacidad Laboral Transitoria, excedencia forzosa por la ocupación de cargo público y servicio militar o prestación social sustitutoria.

Antzinakotasunagatik jaso beharreko kopurua, kobratzeko eskubidea ematen duen hilabetearen lehenengo egunetik kobratuko da hamalau (14) hilekotan (paga estra biak barne) beste inolako ordainketa kontzeptutarako kontuan hartu gabe.

Osagarri honen eraginetarako, Hitzarmen honetan ezarritako legezko prozedura baten bidez bere kontratazio denboran langile finko izatera pasatutako aldi baterako langile interinoei, beren aurreko egoeran zerbitzuan egindako denbora kontatuko zaie, beti ere, jarraipen konponbiderik gabe etenik gabeko azken kontratazioaren hasieratik lanera itzuli badira.

61. ARTIKULUA.- LANPOSTUAREN OSAGARRIAK

Lanpostu batek, lanpostuaren ezaugarriengatik nahiz langileak bere lana egin behar duen moduagatik, ohiko lana ez den beste kontzeptu bat dela-eta izan ditzakeen aparteko egoerak ordaintzen dira. Osagarri horiek izaera funtzionalekoak dira eta hori jasotzea egoera berezi horietan lan egiteari loturik dago bakar-bakarik, beraz, egoera horretan dagoen bitartean bakarrik jasoko dira osagarri horiek. Berariaz kontrakorik esaten ez bada behintzat, ez da oporretan jasoko eta ezta paga estretan ere, eta ez du beste inolako ordainketa kalkuluetarako eraginik izango.

La cantidad en concepto de antigüedad la percibirá el trabajador desde el primero del mes en el cual cumpla el período que le da lugar al cobro de la misma, y en catorce mensualidades (incluidas las dos pagas extraordinarias), sin que se compute para ningún otro concepto retributivo.

A los efectos de este complemento, el personal interino, eventual o temporal que durante el período de su contratación deviniera en personal fijo por alguno de los procedimientos legales establecidos en el presente Convenio, le será computado el tiempo de servicio en su anterior situación, siempre que la incorporación se haya producido sin solución de continuidad, desde el inicio de la última contratación ininterrumpida.

ARTICULO 61.- COMPLEMENTOS DE PUESTO DE TRABAJO

Retribuyen las circunstancias diferenciadas que puedan concurrir en un puesto de trabajo, bien por las características del mismo o por la forma de tener que realizar el trabajador su actividad profesional que comporten una concepción distinta del trabajo corriente. Estos complementos son de índole funcional y su percepción depende exclusivamente del ejercicio de la actividad profesional en esas circunstancias diferenciadas, por lo que únicamente se percibirán mientras se esté sujeto a las mismas y no serán consolidables. Salvo que expresamente se diga lo contrario, no se percibirán en vacaciones ni en las gratificaciones extraordinarias, ni se computarán para el cálculo de ningún otro concepto retributivo.

61.1. Gauekotasun-plusa

Gauez lan egindako orduak (gaueko 22:00ak eta goizeko 06:00ak bitarteko orduak) 2003. urtean lanordu arruntaren balioaren %35aren pareko ordainsaria edukiko dute, II. Eranskinean jasotzen denaren arabera.

61.2. Erantzukizun bereziaren plusa

Hitzarmen honetan araututako kategoriaren baten berezko eginkizunak ez izanik, langileak bere kategoriagatik dagokion baino goragoko mailako eginkizun batzuk betetzetik eratorzen diren erantzukizun edo konfidantza egoera bereziak ordainduko dira honen bidez.

